

azken portuko tabernan

jon maya

Labrit

«Ezin naiz
geldirik egon,
ezinezkoa da»

Nortasun agiria

1978. urteko martxoaren 22an jaio zen, Usurbilen. Ikasketak ere hantxe egin zituen, Udarregi ikastolan, OHOk 8. maila arte. Jarraitu, berriz, REM ikasketekin egin zuen, Lasarten eta Zarautzen, ile-apainketako arloan. Musikaren munduan ez zen garai jakin batean hasi, beti bizi izan baita mundu horretan. Bakarleri gisa eta Bide Ertzean taldean jardun du.

Bizilekuarekin zorabiatu egin zaitzake neska honek. Gurasoekin dezentetan aldatu duela dio, baina «independizatu» denetik are eta gehiago. Usurbilen, Aginagan, Orion, Donostian, Hernanin — orain —, «eta laster berriro ere Usurbilen». Noiz arte? «Ez, han erroak botatzen haste-ko asmoa dut». Ez da marka txarra bi urtetan egiteko. Etxetik bere garaian irten zela dio, «barruak eskatutakoan», eta arrunt gustura dabil: «Primerakoa da».

Kantagintza du lanbide. «Gero, hala ere, beti gustatzen zait arte mundua inguratzen

duen beste gauzetan aritzea; idaztea dela, antzerkia dela... denak erakartzen nau». Goazen astiro-astiro. «Egunero zerbait idazten dut, nahiz eta pertsona batek egiten dituen txorakeria handienak izan; batzuetan ohartxoak, bestetan fikziozko istorioak hasi, gero gorde eta handik urtebetera jarraitzen ditut...». «Koadroak-eta pintatzea gustatzen zait; astia dudanean gurasoen etxera joaten naiz —

aita margolaria du —, eta han dauden oihala zaharrak hartzen ditut pintatzeko». Antzerkia ere aipatu duzu. «Ez dut baztertzeko inoiz antzerkian hastea; asko erakartzen nau, eta, agian, saiatuko naiz noizbait».

Ile-apainketa ikasi zuen, batez ere, geroan Unibertsitatean sartzeko modua izateko, «beti hor eduki eta ikasteko gogoaz sartzen bazait aukera izateko». Psikologia ikastea atsegingo lukeela dio, «baina egia esan, denetik egingo nuke»: «Nik uste dut inoiz ezin duzula esan hau edo bestea gustatzen zaizula, zeren bizitzako beste epe batean agian beste zerbaitek erakartzen zaitu gehiago». Ilajeekin jolastea, hala ere, gustatzen zaio. Lagun baten amak beti esaten omen dio orrazkera arrunt bat egiteko, zeren sarriegi jotzen omen du aldatu keta handietara: «Hala ere, gero gustatzen zaie».

Baina honek guztiak baino gehiago (ikasketak, ile-apainketa...) balio du, bere ustez, musikak, eta horregatik utzi ditu alboan. Orain zuzeneko kontzertuetan dabilen arren, badu beste proiektu berezi samar bat buruan, eta «oso polita» izango den uste osoa du: «Baina ez dut esango oraindik, zeren horrelako kasuetan aurrietik esanez gero beti gaizki ateratzen da».

Daraman bizimoduan, ohikotasunak ez du leku handirik: «Egunero gosalduta, bazkaldu eta afaltzen dut, baina hortik aurrera inoiz ez dut gauza bera egiten, atsegin dudana arabera moldatzen naiz». Mendia, gitarra... Hala ere, musika eta arteak erabat asetzen duela dio, eta ez du beste zaletasunetara askorik jotzen. «Kirola, igeri egitea... Izan ere, zer da zaletasuna? Gustura sentiarazten zaituena? Liburu batek, adibidez, munduz erabat aldatzen laguntzen dizu». Liburu mordoa irakurtzen du — hiru edo lau aldi berean ere bai —, eta

askotan zer irakurtzen ari den jakin gabe gainera.

Izaeraz, argi du nolakoa den: «Ez naiz geldirik egoten, ezinezkoa da; zurrumbilobat bezalakoa naiz, dena egin behar dut».

bat-batean

■ Zer atsegin duzu gehien?

Lo egitea.

■ Eta gutxien?

Hipokrisia.

■ Hiru desio?

Inspirazioa ez faltatzea, osasuna eta maitasuna ez faltatzea.

■ Liburu bat?

El dios de las pequeñas cosas.

■ Kantu bat?

Let's get to it, Kylie Minogue.

■ Parrandarako leku bat?

Edozein, konpainia onarekin.

■ Edateko?

Lejia.

■ Zer eramango zenuke uharte batera?

Disco mordoa, hauek entzuteko tresna, liburuak eta konpainia fidela.

■ Pertsonaia bat?

Barbara Streissan

■ Zeini egingo zenioke elkarrizketa hau?

Robert De Niro.

zirika

Argazki ilunetako herrialdeak



nagore amondarain

Emakume bat dago leihoan. Alfonbra astintzen. Ohiko irudi bat izango da beharbada, baina... Ajearen kontuak dira. Arrazoia baitzuen gizon hark pozik oheratzeak biharamuna zekarrela zioenean. Haizeak ileak orrazten dizkigun goizetan, ordea, zuhaitzak ere makurtu egiten dira gu agurtzeko.

Emakumearen jarduna dut gogoan oraindik, espaloian zehar barreiatzen naizelarik, eta sinesgarritasun bako aitzakiapean, bazterretan gelditutako agureak atsedean barik hitz egiten entzuten ditudan bitartean... Albistegietako zorigaztoei buruz segurua asko; edo leihoan ikusi duten emakumeari buruz?

Pausoak baldosa batetik bestera bidaltzen ditudan heinean, Zanzibeko ur-jauziak gogoratu ditut suizidioaren ateetan, eta txirula hotsez eraikitako indiar monumentuak, eta minuturo ibai sakratura eroritako gorpu bat

gehiago, eta ikaraz bizi den herriaren mintzo isila, dardara batengandik ihesi. «Samurragoa zen beharbada lautada marmolezkoen» garaian, baina zorritxarrak bidea bakarrik gurutzatzen ikasi duenetik, nire ametsetako herrialdeak muturren aurrean lausotu zaizkit, alfonbra etenik gabe astintzen zuen emakumearen begiradapean.

Bidaia agentzietako eskapateetan bila nabil, non zaudete ordea? Addis Abeba (liburu eder hartatik at), Calcutta (ama galdu zuen amaren zotina), Sierra Leona (erregearen ohian odoleztatua), Kurdistan (ahaztutako herriaren ke usaina), El Salvador (besteak salbatu nahian hil den heroia) eta Delhi (zahar gelditu den gaztea).

Minutuetan jardun dut argazki haiek hiriko kale zabalenetan dagoen eskapateetan bilatzen, baina alferrik. Eguzkia, egunero, beldurrez esnatzen den lurraldeetan ez dago argazkirik egiterik; beti ilunegi aterako dira.